

V. IGANDEA URTEAN ZEHAR (B)

Otoitza

Zure betiko maitasunaz zaindu, Jauna, zeure familia;
eta, zure grazia baitugu gure itxaropen bakarra,
zaindu gaitzazu beti zure babesean.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: Job 7, 1-4. 6-7

Goizetik gaueraino hor nabil batera eta bestera.

Joben liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zen Job:
«Gizakiaren bizitza lur gainean morrontza bat da;
haren egunak, langile egunak dira.
Morroiak bezala itzala irrikatzen du,
eta langilea bezala lan sariaren zain dago.
Hilabete latzak igaro ditut nik,
gau negargarriak ematen dizkidate.
Etzaten naizenean, hala diot:
"Noiz jaikiko ote naiz?"
Eta jaikitzen naizenean:
"Noiz etorriko ote da gaua?"
Goizetik gaueraino hor nabil batera eta bestera.
Ehuleen ainezka baino arinago dira egunak,
eta itxaropenik gabe akitzen dira.
oroi zaitez, nire bizi-arnasa bat dela,
eta nire begiek zorionik ez dutela berriz ikusiko».

ERANTZUN SALMOA: Sal 146, 1-2. 3-4. 5-6

R/. **Goretsazue Jauna,
bihotz-urratuak sendatzen dituen.**

Goretsazue Jauna,
ona baita gure Jainkoari eresi egitea,
gozoa Hari dagokion gorespina ematea.
Jerusalen Jaunak eraikitzen du,

Israeldik banatuak biltzen ditu. R/.

Bihotz-urratuak Berak sendatzen,
eta haien zauriak lotzen.

Izarrak bat-banaka ditu zenbatzen,
bakoitza bere izenez izendatzen. R/.

Haundi da gure Jainkoa, indarrez indartsu,
Hark dakienak neurrik ez du.
Jaunak umilak altxatzen ditu,
gaiztoak lurrera egozten ditu. R/.

II. IRAKURGAIA: 1 Kor 9, 16-19. 22-23

Errukarri ni, Ebanjelioa zabaltzen ez badut.

San Paulo Apostoluak Korintotarrei

Senideok: Ebanjelioa zabaltzen dudala eta, ezin harro naiteke. Beharrezkoa baitut nik hori; eta errukarri ni, Ebanjelioa zabaltzen ez badut!

Horretan nire gogoz ari banintz, hori bera nuke sari; baina nahiezta egiten badut, ezarri didaten eginkizuna dut. Zer da, beraz, nire saria? Ebanjelioaren zabalkundea egitea; eta hori, berri ona hutsean zabaltzeagatik datozkidan eskubideetaz baliatu gabe.

Inoren menpeko ez izanik ere, guztien morroi egin naiz, guztiak irabazteko. Argalentzat argal egin naiz, argalak irabazteko; guztientzat guzti egin naiz, nolabainnorbaitzuk irabazteko. Eta guztia, Ebanjelioarengatik egiten dut, berri on horretan neuk ere parte izan dezadan.

EBANJELIOA: Mk 1, 29-39

Aleluia: Mt 8, 17

R/. Aleluia.

V/. Kristok gure ahuleriak hartu ditu,
eta gure gaitzak eraman. R/.

Hark asko sendatu zituen era guztietako gaitzetik.

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik

Aldi hartan, Jesus, sinagogatik aterata, Simon eta Andresen etxera joan zen, Santiagorekin eta Joanekin. Simonen amaginarreba ohean zegoen, sukarrarekin; eta berehala harengatik hitzegin zioten. Ondora joan zitzaion Jesus, eskutik heldu eta jaiki erazi zuen; eta sukarrak utzi zuen eta

zerbitzatzen hasi zitzairen.

Arratsaldean, eguzkia sartu zenean, gaixo eta deabrudun guztiak zekarzkioten; eta herri guztia ate aurrean bildu zen. Hark asko sendatu zituen era guztietako gaitzetik, eta deabru asko uxatu zuen. Eta deabrueri ez zien uzten hitzegiten, bai bainzekiten Bera nor zen.

Goizean goiz, oraindik ilun zegoela, jaiki zen eta aterata, leku bazter batera joan zen, eta han otoitzean hasi. Simon eta Simonekin zirenak, Haren bila atera ziren; eta aurkitu zutenean esan zioten: «Denak zure bila dituzu».

Eta Hark: «Goazen hemendik inguruko herrietara, han ere hitzegin dezadan; horretara etorria naiz eta». Eta hala Galilea guztian barrena zebilen, sinagogetan hitzegiten eta deabruak uxatzen.

Oparigaien gainekoa

Jainko gure Jauna,
gu indartzeko egin dituzu ogia eta ardoa;
egizkizu guretzat betiko biziaren sakramentu ere.
Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Jainko Jauna,
ogi eta kaliza beretik hartzea eman diguzu;
egizu, Kristorengan bat eginik bizi gaitzezela
eta fruitu ugari ekar dezagula
munduaren salbamenerako.
Jesu Kristo.